



## *MKB Mercedes Kareaga Bekaren Epaimahaiaren akta*

2022ko azaroaren 11n, Eibarko udaletxeko bilera-aretoan, MKB Mercedes Kareaga Bekaren Epaimahaia bildu da, 14:00etan, Bekaren Oinarrietako 5. atalaren arabera eratua eta hitza eta botoa duten honako kide hauekin osatua:

**Jon Iraola Iriondo, Eibarko alkatea**

**Unai Belaustegi Bedialauneta, Historia Garaikidean doktorea (UPV/EHUko Historia Garaikidea Sailak izendatutako aditua)**

**Yolanda Ruiz Urbón, Eibarko Udal Artxiboaren arduraduna**

Begoña Azpiri Eguren Epaimahaiaren idazkariak adierazi du aurkeztu den hautagai bakarrak, Begoña Etxenagusia Atutxa andreak, bete egiten dituela Bekaren Oinarrietan adierazitako eskakizun guztiak eta Epaimahaikideei aurretik bidali zitzaizela hautagaiak aurkeztutako dokumentazioa, azter zezaten.

Epaimahaikideak gaiaren inguruan aritu dira eta honako alderdi hauek azpimarratu dituzte aztertu duten ikerketa-proposamenaren inguruan:

. Aurkeztu duen proiektuaren helburu nagusia Mercedes Kareaga generoaren ikuspegitik aztertzean datza, generoa azterketa-erreminta legez erabilia, protagonista osotasunean ulertuta eta haren bizitza bilakaera historikoan kokatuta: Primo de Riveraren diktadura, Bigarren Errepublika, Gerra Zibila, Francisco Francoren diktadura eta, azkenik, aldi demokratikoa. Hori guztia, etengabeko aldaketa politiko eta sozialean emakume gisa zuen rolaekin lotuta.

. Metodologia historikoa, zientifiko eta akademikoaren gaineko jakintza ematen dion formazioa du.

. Ikerketa-lanen zabalkundearen garrantzia ezagutzeko baliabideez jantzita dago, aurkeztu duen Memorian aipatu baitu emaitza ez dela espezialistentzat bakarrik idatzita egongo.

. Kareagaren bizitza testuinguruan jartzen duen garaia buruzko hutsune nagusienak aipatu ditu eta jakitun da artxibo-lan handia egin behar duela ikerketa aurrera ateratzeko; horrek balio gehigarria eranstean dio proiektuari, zailtasunak seinatzeaz gain, zailtasun horiek gainditzeko bideak erakutsi dituelako: garai historikoak kontestualizatu ditu, orain arte arakatu ez diren edo gutxi aztertu diren dokumentuen ekarpenarekin, informazio-iturriak emanez, aztertuko dituen Artxiboak, funtsak eta dokumentu-serieak ondo zehaztuz.

. Gerra Zibilari buruz egiten duen gogoeta interes handikoa da, izan ere, egin duen ikerketa historikoaren planteamendua Mercedes Kareaga generoaren ikuspegitik aztertzen saiatzen da, Gerra Zibilak Euskadin izan zuen eraginean oinarrituta.


. Proiektuan aurkeztu duen kronograma errealista eta egingarria da.

. Hautagaiak egin duen proposamenak dakarren berritasuna Mercedes Kareagaren biografia genero-ikuspegiaren alderditik aztertzean datza; izan ere, generoa, gizarte-kategoria gisa, feminismo garaikidearen ekarpen teoriko esanguratsuenetako bat da. Esparru honetan sortu zen, oro har, emakumeen historia eta, orain honetan, bereziki, Mercedes Kareagaren biografia, emakumearen parte-hartzea eta haren bizi-ibilbidearen zehar egindako ekarpena ahalbidetzeko.

Horren ondorioz, aho batez, Epaimahaiak erabaki hau hartu du:

**Begoña Etxenagusia Atutxa andreari ematea 2022ko MKB Mercedes Kareaga Beka (2)**


Jon Iraola Iribondo, alkatea



Unai Belaustegi Bedialauneta, Historian doktorea (UPV/EHU)



Yolanda Ruiz Urbón, Eibarko Udalaren artxibozaina



Begoña Azpiri Eguren, idazkaria

